ZUMARRAGAKO
UDALA

Urretxuko udala

# GABONETAKO XXXIV. IDAZLAN LEHIAKETA

## URRETXU eta ZUMARRAGA 2022

Urretxu eta Zumarragan, 2022ko abenduaren 6an, honako erabakia hartu du Idazlan Lehiaketako epaimahaiak:

**ERABAKIA:**

Saridunen izenak zeintzuk diren esan aurretik epaimahaiak ondokoa adierazi nahi du:

1. Maila batean zein bestean **partaidetza oso zabala** izan da eta lan askoren maila bikaina. Hori dela eta, benetan zaila izan da maila bakoitzeko hiru lan onenak aukeratzea.
2. Lan sarituak aukeratzeko orduan, **aukeraketa etapa ezberdinetan** egin da. Lehenengo etapan lan guztiak irakurri dira (237 eta 205); horrela, lan horien guztien artetik, txikien mailan 32 lan aurre-hautatu dira eta handien mailan 41. Segidan, bigarren irakurketa bat egin zaie lan aurre-hautatu horiei eta maila bakoitzeko azken aurre-hautaketa bat egin da: 11 txikien mailan eta 10 handien mailan. Azkenik 3 lanik onenak aukeratu dira maila bakoitzean.
3. Saririk gabe geratu diren **lan asko eta asko maila oso handikoak** izan dira baita ere, baina azken irakurraldian xehetasunetan jarri da arreta eta horrela hartu da azken erabakia. Edozein kasutan, lan batzuk saritu eta besteak saririk gabe uztea ez da erraza izan.
4. Epaimahaiak bereziki **zoriondu** nahi ditu lehiaketan parte hartu duten haur guztiak, eta baita beraien gurasoak eta eskoletako irakasleak ere, haur horiengan idazteko zaletasuna sustatu eta bultzatzeagatik. Beste behin ere argi geratu da Zumarragan eta Urretxun maila handia dagoela eta hori bereziki poztekoa da, are gehiago lehiaketa honetara aurkeztu diren ipuin guztiak **euskaraz** idatziak izan direla kontuan hartuz.

### A. Taldea (L.H.ko 3. eta 4. mailakoak)
**247 idazlan aurkeztuta**
GAIA: "Opariak jasotzea ez da Gabonetako gauzarik garrantzitsuena."

**1. saria**: Aritz Estalayo Díaz
**2. saria:** Asier Mendia Rodríguez
**3. saria:** Unai Segurola Plazaola

### B. Taldea (L.H.ko 5. eta 6. mailakoak)
**215 idazlan aurkeztuta**
GAIA: "Bidaia hark zerbait irakatsi zidan."

**1. saria:** Paula Ibarzabal Pozueta
**2. saria:** Irati San Vicente Elejalde
**3. saria:** Mara Larraza Aranburu

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau izenpetzen dute.

# GABONETAKO XXIV. IDAZLAN LEHIAKETA

1go SARIA
A.TALDEA

Zarautzen aspaldi gertatutako pasadizoa kontatuko dut, nire adineko mutiko batek bizi izandakoa hain zuzen ere:

Ander mutiko bakartia zen. Lotsatia ez izan arren, ez zuen lagunik. Azkarra eta irudimen handikoa izanik, ere ohitura txarrak zituen: gurasoei ziria sartu, auzoko txikiteoei beldurrezko istorioak kontatu,... Ez zen batere ondo portatzen eta, horren ondorioz, Olentzerok urtero ikatza ekartzen zion.

Eguberri-egun hartan ere zapatila ondoan zer topatuko zuen bazekien. Eta ez zuen berriro jostailurik gabeko eskolako ume bakarra izan nahi. Horregatik, familia diruz justu zegoenez, bi astez etxean eskean ibili zen. Baina gurasoak kokoteraino zituen eta ez zioten jaramonik egin.

Gabon-gaueko afarian, opariak jaso nahi zituela esan zien aiton-amonei. – Zureak egin du! – erantzun zioten. Ander jarrera aldatu behar zuela pentsatuz oheratu zen. Kostata loak hartu zuen eta goizaldeko hirurak aldera ate-hotsak esnatu zuen. Bat-batean Olentzero agertu zen eta ea berarekin joan ote zitekeen galdetu zion Anderrek. Olentzerok buruaz ezetz egin zuen eta merezi ez zuela adierazi zion. Hala ere, orpoz-orpo jarraitu zion umeak. Olentzerok konturatu orduko, Naparen gainean zegoen, lekutan zegoen etxerainoko bidean.

Bidaia luzea izan zen: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa. Elkarrekin joan ziren eta Ander laguntzaile trebea izan zen. Era lat damututa, barkamena eskatu zuen. Zoriontasuna banatzea zein garrantzitsua den ikasi zuen. Harrezkero bere portaera aldatu zen.

2. SARIA
A. TALDEA

**GABONETAKO XXIV. IDAZLAN LEHIAKETA**

# OPARIAK JASOTZEA EZ DA GABONETAKO GAUZARIK GARRANTZITSUENA

Hurrengo hilabetean Gabonak izango dira.
Gauzarik garrantzitsuena ez da opariak jasotzea baizik eta ondo pasatzea, disfrutatzea.

Baina benetan gehien gustatzen zaidana da nire familiarekin egotea eta gauza ezberdinak egitea.
Adibidez bingo jolastea, bazkaltzea eta afaltzea, kalera irten eta dena oso argitsu ikustea, giro ona egotea, apaintzen laguntzea aita eta amarekin oso dibertigarria delako eta gabonetako pelikulak ikustea oso politak direlako.
Aitona-amonekin, izeba-osabekin, lehengusuekin eta birramonarekin gustatzen zait egotea.
Normalean egiten ez ditugun gauzak egiten ditugu eta oso dibertigarriak dira.

## GABONETAKO XXIV. IDAZLAN LEHIAKETA

3. SARIA
A. MAILA

# "OPARIAK JASOTZEA EZ DA GABNETAKO GAUZARIK GARRANTZITSUENA"

Bhein batean, Urretxu izeneko herri txiki batean Unai izeneko 9 urteko ume bat bizi zen. Ile motza, begi marroiak eta hanka luzeak zituen. Gabonak iristea nhai zuen opariengaitik.

Bere gurasoek notizi txar bat eman zioten. Osaba kartzelara eraman zuten baina Unairi ez zitzaion inporta.
Elurra hasi zen eta jolastera joan nhai zuen, ez osaba bisitatzera.
3 egun falta ziren gabonak iristeko eta oso pozik zegoen.
Ohera joan zen Esnatu eta 2 egun falta ziren eta karta botatzera jaan zen. Oso luzea iruditu zitzaion gaua, pisagurea zuen eta komunera joan zen. Berriz oheratu eta goiza iritsi zen. Korrika joan zen opariak irekitzera bat bakarrik zegoen. OSo handia zen eta irekitzera joan zen. Uste zuen bizikleta bat izango zela baina bere osaba zen. Eta esan zuen, munduko oparirik hoberena hau da! Beraz kontuoratu zen pertsonak gauza materiala baino inportantegoa dela.

Izen-abizenak: Unai Segurola Plazaola

1.go SARIA
B TALDEA

# OHITURA ZAHARRAK

Garaiak asko aldatu dira eta gaur egun animalien sufrimendua gaizki ikusia dago. Talde askok aldarrikatzen dute animalien egoera latzak eta nola ez, erregeen gameluak ere talde honetan sartuta daude. Hauek asko sufritzen dutela diote. Erregeek hau entzunda ez dute arazorik nahi eta aurten Jesus haurtxoari eta munduko umetxoei opariak garraio desberdin batean eramatea pentsatu dute.

Alkateari galdetu diotenean, honek, kamioneta bat erabiltzea gomendatzen die.-Ez daude oso konforme ideiarekin eta herriko apaizarengana jo dute.

Joxe Fernandok harrituta erantzuten die:
- Ze demontre zabiltzate! Gameluak beti gamelu eta ardoak beti ardo! Nik uste dut gauza batzuk ezin direla aldatu eta hau ere aldaezina da. Zuek Meltxor, Gaspar eta Baltasar zareten bezala!

Azkenik Lehendakariari galdetu diote eta honek hiru pisutako autobus elektriko bat gomendatu die. Ideia hau hirurei ondo iruditu zaie, horrela ingurumena ere zainduko dute eta aurten izugarrizko harrera egingo diete munduko txoko guztietan.

Hiru erregeek gauzak prestatu eta autobus elegante batean sartu dira opari guztiekin, urrea, intsentsua eta mirra ahaztu gabe, noski. Bidaia ondo antolatu dute mapa batean eta txoferra prest dagoenean atera dira.

Hirurak doaz pozez zoratzen eta prest daude esperientzia berri bat bizitzeko. Autobusa gameluak baino azkarragoa denez, lehenengo bizpahiru egunetan gameluekin bost egunetan egindako lana eginda daukate eta denboraz oso ondo doazenez egun sabatikoa hartzea erabaki dute.

Antolatuta daukaten bidetik desbideratu egiten dira Afrikan zehar. Txoferra beti lo dago eta nahiko alferra da. Errege egunerako hiru egun falta direnean, bidean jartzen dira lana bukatzeko, eta bapatean autobusak pott egiten du, ez aurrera ez atzera.

- Ze arraio gertatzen zaio autobusari? -esaten du Meltxorrek.
- Edozein tontakeri izango da -erantzuten du Gasparrek.
- Bateria gabe gelditu gara -txoferrak.
- BATERIA GABEEE! -Baltasarrek.
- Ibili garen lekuetan ez zegoen entxufe elektrikorik eta bateria guztiak agortu dira! - erantzun dion lasai txoferrak.

Gure lagunek ez dakite zer egin falta zaien lan guztia bukatzeko, eta autobus harekin gutxiago. Desesperaturik Baltasarri ideia bat bururatu zaio.

- Goazen Joxe Fernandori deitzera, hark lagunduko digu eta.

Meltxorrek mugikorra begiratzen du eta bateria gutxi gelditzen dela ikusten du.

- Azkar hau ere berehala itzalduko da eta!

Joxe Fernando tabernan ardoa edaten dagoela Erregeen deia jasotzen du. Ezin du sinetsi. Berak esan zien gameluak zirela aproposenak lan hori egiteko. Mende askotan horrela izan dela.

Ziztu bizian gameluak atseden hartzen dauden baratzera joan da Joxe Frenando. Samarra, Tigris eta Saladino behar bezala prestatu eta Erregeenaga joateko agindua eman die.

Salbatuta daude, munduko ume guztietara eta Jesus haurtxoarengana garaiz iritsiko dira. Bidaiari ekiten diote, maparik eta GPS-rik gabe. Ortzian dauden izarrak dira haien gidari. Gaua berriz ere magikoa bihurtu dute. Oparia banatu gero, urrea, intsentsua eta mirra haurtxoari eskainiz bukatzen dute bidaia eta etxerantz bueltatzen dira. Aurtengo bidaiak lur jota utzi ditu Erregeak.

Milaka urte daramatzate Erregek bidaia hau egiten eta, nahiz eta garaiak aldatu, ohitura batzuk mantendu egin behar direla argi gelditu zaie Erregeei!

2. SARIA
B. TALDEA

# BIDAI HARK ZERBAIT ERAKUTSI ZIDAN

Oso pozik nengoen, irakasleak txango bat egin behar genuela esan zuelako. Baina hitz egiten jarraitu zuen, 4 gau eta 5 eguneko txangoa zela esanez. Orduan, izerditan hasi nintzen. Eta galtzen banintzen? Edo etxera itzuli nahi banuen? Ez nuke jasango. Bat-batean, ikastolako txirrinak jo zuen, eta inorekin hitz egin gabe, etxera joan nintzen. Gurasoei esan nien txangoarena, baina ulertu arren, joateko esan zidaten. Egunak pasa ziren, eta ni, ikastolara joan gabe nenbilen. Tripako mina, sukarra, egonezina... Baina buruari buelta asko eman ondoren, txangora joatea erabaki nuen.

Iritsi zen eguna, eta maletarekin irten nintzen kalera. Saioa aurkitu nuen batera esertzeko autobusean, eta goiz irten ginen herritik, bi ordu eta erdiko bidaia zelako. Baina orduan, batere espero ez nuen zerbait gertatu zen.
-Botaka egiten pasa dut gaua - esan zidan lagunak.
Ezin nuen ulertu, bakarra nintzela uste nuen. Baina segidan, beste zerbait entzun nuen, oraingoan irakasleen elkarrizketa.
-Egia esan, ikasle batzuk azkeneko momentuan ez etortzea erabaki dute.
-Ba bai. Ni beraien lekuan egon izan banintz, berdina egingo nuke.
Eta horrek bai. Horrek benetan bai egin zidala ulertarazi, denok dauzkagula beldurrak eta ardurak.

Hurrengo lau egunetan, inoiz baino hobeto pasatu nuen, nire lagunekin batera. Eta klasera bueltatu nintzenean, ikusi nuen etorri ez zirenek pena sentitu zutela. Beraz beste txango bat antolatu zuten irakasleek. Berehala erabaki nuen joango nintzela.

Eiderren

3. SARIA
B. TALDEA

# BIDAIA

Orain dela 10 urte inguru Nafarroako herritxo batean 13 urteko neska batek sekulako asmakizuna lortu zuen egitea.

Gabonak ziren eta Eiderrek denboran bidaiatzeko makina bat egitea lortu zuen.

Eiderrek 13 urte zituen eta Nafarroako herri txiki batean bizi zen, berak nahi zuen zuen gauza bakarra bere Aitona Martinek kontatzen zizkion istorioak bizitzea zen.
Bere aitonak kontatzen zion txikia zenean, eskolara oinez joan behar izaten zutela, baita elurra egiten zuenean ere. Bere irakasleak ez zirela batere atseginak eta batzuetan jo eta dena egiten zituztela.
Etxean irratia bakarrik zutela, ez telebistarik, ez tabletik eta mugikorrik ere. Eta Eiderrek hori bizi nahi zuen.

Eta egun batean hilabete asko lanean egon ondoren denboraren makina bat egitea lortu zuen. Lehenengo minutu batzuk bakarrik egin zitzakeon denboran aurrera eta atzera baina, hilabete batzuk lanean jarraitu ondoren, urte bat atzera egitea lortu zuen, bere 2010eko urtebetetzera joatea lortu zuen. Eta bapatean bere burutik milaka gauza pasatu ziren, munduko pertsonarik garrantzitsuena, famatuena eta aberatsena izatea lortu zezakeen!! Baina ez, gogoratu zen, makina aitonaren istoriak bizitzeko eraiki zuela.

Hurrengo goizean aitonaren etxera joan eta dena kontatu zion. Aitona Martin zen makinarena zekien bakarra eta horregatik bere etxeko garajean zeuden makina egiten.
Aitona oso oso pozik jarri zen.
-Azkenean nire txikitako garaira itzuliko naiz, irrikitan nago! -esan zuen aitonak.
-Bai, nik ere sekulako ditut! -esan zuen Eiderrek
-Gaur arratsaldean joango gara asteburua pasatzera, zuk esan gurasoei nirekin zatozela -esan zuen aitonak
-Primeran- erantzun Eiderrek

Eiderrek aitonaren etxean bazkaldu zuen eta arratsaldean bere etxera joan zen maleta prestatu eta joateko. Gurasoei ere oso ondo iruditu zitzaien.
-Aita, ama joan nahiteke aitonarekin asteburua pasatzera? -esan zuen Eiderrek
-Baina nora joan nahi dezue? -galdetu zuen aitak
-Ba ez dakit aitonarekin lekuren batean eguna pasa eta hotelen batean egingo dugu lo -erantzun Eiderrek.
-Lasai maitia utzi joaten, Aitonarekin doa -esan zion amak aitari
-Bueno bale -erantzun aitak.
-Eskerrikasko -esan zuen Eiderrek eta besarkada bat emanda bere lo gelara joan zen maleta prestatzera.
Maleta prestatu zuenean, aitonari deitu eta bazihoala esan zion.
Aitonaren etxera iritsi zenean, aitonaren garajera jeitsi ziren. Han zegoen makina, tela batekin estalia.
-Bueno, prest zaude? -galdetu zion aitonak
-Prest!- esan zuen Eiderrek.
Eta biak batera makinan sartu ziren. Aitonaren lehen aldia zen baina Eider behin baino gehiagotan joan zen etorkizunera eta iraganera.

Iritsi zirenean dena elurtuta zegoen, eta egin zuten lehen gauza hotel bat bilatzea izan zen. Aitonak ondo ezagutzen zuen ingurua eta arazorik gabe aurkitu zuten hotela. Logela izugarri polita zen, bi ohe zituen oheen atzean kuadro handi bat zegoen. Komuna ere bazuen, garbi-garbi eta txukun-txukun zegoen.

Logelan dena utzi ondoren buelta bat ematera joan ziren. Aitonak dena ikusi nahi zuen, eta segunduro gelditzen zen esaten "ze polita" edo "honekin gogoratzen naiz".

Azkenean aitonaren txikitako etxera iritsi ziren, leihotik ikusi zituen ama, aita anaiarrebak eta baita Like txakurra ere. Aitonari irrifarrea marraztu zitzaion aurpegian, eta sartzea erabaki zuen, baina Eider han zegoen eta esan zion:
- Aitona baina nora zoaz?
- Barrura nire familia ikusi nahi dut - erantzu besteak.
- Ezin duzu, ez zaituzte ezagutzen!! - garrasi egin zion Eiderrek baina alferrik aitona jada timbrea jotzen ari zen. Aitonaren amak atea ireki zuenean esan zuen:
- Bai, nor zara?
- Kaixo ama Martin naiz - erantzu aitonak
- Barkatu baina gure Martintxo hemen dago barruan. Eta ez naiz zure ama.
- Bai, bazara - esan zuen aitonak - utzi dena azaltzen mesedez.
- Bueno bale, baina hemen kanpoan hoztu egingo zara, sartu barrura - esan amak.
- Eskerrikasko!! Baina nire biloba ere sartu daiteke?
- Noski, sartu - erantzu amak

Aitona gutxi gorabehera ordu oso bat egon zen dena azaltzen, eta azkenean sinistu egin zuten.
- Vau - esan zuen Martin txikiak
- Ba gurekin afaltzen gelditu zaitezkete - esan zien aitak.
- Primeran! - erantzun aitonak.

Eta horrela oso gustora geratu ziren, nahiz eta hurrengo egunean etxera itzuli beharra izan, Eider oso gustora zegoen. Eta Eiderrek esan zuen berala "bidaia hark asko irakutsi zidan".

Maia Larraza Aranb...